

Kontuan hartu behar dugu funtsezko elementuak direla enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.

Gauzak horrela, gure enpresak beharko dituen baliabideak lau multzotan banatu ditugu:

Baliabide fisikoak: Muntai katea, fabrika eraikiko dugun lokala/lurra

Baliabide intelektualak: Ingeniari bat patinetea diseinatzeko, energia berriztagarrietan aditu bat eta marketin arduraduna.

Giza baliabideak: Muntai kateko langile kualifikatuak beharko ditugu, lehen aipaturako espezialistez gain.

Finantza-baliabideak: Inbertitzaileak beharko ditugu lanean hasi ahal izateko.